



Bigarren eskuko azoka izango da gaur goizean, Atsegindegin

HILEKO azkeneko larunbata izanda, bigarren eskuko azoka izango da gaur Atsegindegin. Azokan era guztietako produktuak erosteko aukera izango da goizetik eguerdira bitarte. Bertan egongo dira: arropak, liburuak, erramintak, oinetakoak, jostailuak... Behar ez diren produktuak beste batzuei eskaintzeko edo beharrezkoak direnak prezio onean lortzeko aukera izango da. ||

Bertsolatako bazkaria gaur Errioguardan

BERTSOLATA, Gabonen bueltan egin ohi den bertso astea, herenegun hasi zen Gabon eskearekin, eta gaur jarraipena izango du, bertso bazkaria izango baita Errioguardan. Bertso Eskolako kideak ariko dira kantuan, Joxe Luix Urdangarinek aurkeztuta. Gaia: *Hernani, 15.000 urte bertsotan.* ||

HERNANIKO SENIDEAK Astigarragatik Martuteneko espe- txera martxa bihar

Hernaniko presoen senideek jakinarazi dutenez, martxa egingo da bihar Martuteneko espetxera, *Eskubide guztien jabe, hator hator etxera* lemarekin bat eginez. Astigarragako poligonoko Gruas Alonso paretik abiatuko dira 11:00etan. Beste zutabe bat Egjatik aterako da eta biek bat egingo dute Martuteneko espetxean, 12:00etan. Bertan ekitaldia izango da. Senideek dei egiten diete herritarrei parte hartzeko. ||

PELOTA- Gipuzkoako Txapelketa Hernaniarrek hiru final jokatu dituzte gaur

Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur Hernaniko hiru bikotek. Aurreneko mailako jubeniletan Xabi Santxo-Markel Lizeaga Aurrera Saiazen aurka neurtuko dira 17:00etan Hernanin. Beste biak Usurbilen izango dira 11:30etatik aurrera. 3garren mailako kadeteetan Josu Altuna-Ohian Lujanbio Oiarperen aurka ariko dira, eta seniorretan, Unai Ezeiza-Eñaut Esnaola Usurbilen aurka. ||

GAUR KRONIKAN

Jasota Bezala /2-3

Laburrak /3

Eliza-Gotzain berriaren izendapena /3

EiTB Trindoor txapelketako finala /6

'Nafarroaren konkista' /8



Opari txikiek ilusio haundia piztu zuten

ETXEETAN barrena opariak herenegun banatu aurretik, Hernaniko kaleetan ibili zen Olentzero. Plazarako bidea egin, eta bertan banatu zituen eguneko aurreneko opariak. Banakaka-banaka pasa ziren herriko umeak, eta muxu batekin agurtu ostean, jaso zuten aurreneko saria. Ondoren, ondo merezitako opariak jaso zituzten etxeetan. /2



40garren URTEURRENA

40 gabon-zesto zozketatzen ditugu

Eskerrik asko zuen leialtasunarengatik

Ilusioa oparitu ezazu Eguberritan!!

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

Olentzero umeen eskari eta muxuak jaso, eta opariak banatzen ibili zen, etxez-etxe, gau osoan zehar

Plaza eta kale bete jendek itxaron zuen Olentzeroren etorrera Hernanin.

URTE osoan zehar desiratutako eguna iritsi zen etxeko txikientzat. Goizean goizetik, Olentzeroren etorrera girtzen ibili ziren ikastolekin. Arratsaldean berriz, herriko Plaza eta kaleak hartu zituzten, Olentzero ikusi, eta eskatutakoak gutun bidez emateko. Ilunabarrean iritsi zen ikazkina Plazara, eta goxoki eta gaztainak banatu ostean, banan-banan hartu zituen herriko umeak. Ondoren, gau osoan zehar, etxez-etxe ibili zen, opariak banatzen. ||



Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

'Fe y Alegria Guatemala'-k eskerrak eman nahi dizkie Gipuzkoako erakundeei

Abenduko aurreneko egunetan Gipuzkoako erakunde ezberdinak bisitatzeko aukera izan dut. Kooperazio eta garapen proiektuak izan ditugu elkarrekin, *Hirugarren Adina Hirugarren Mundua* erakundeak lagunduta; konpromezu eta entrega osoa duten pertsonez osatutako erakundea.

Guatemalan, *Fe y Alegria Guatemala* fundazioari esker, 12.500 ume joaten dira eskolara. Fe y Alegria- k 47 eskola-zentro ditu, Guatemalako 7 probintzietan banatuta. Horieta aritzen dira lanean 650 irakasle, duten profesionaltasun eta bokazioarekin laguntzen. Asko dira aurretik ditugun proiektu eta beharrak. Baina baita ere, bide-lagun asko ditugu, gurekin kolaboratu eta solidarizatzen direnak.

Fe y Alegria Guatemala fundazio hezitzailetik, bereziki eskertu nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen guztia gure ikasleen heziketa kalitatea eta baldintzak hobetzeko.

Baita ere, eskerrak eman nahi dizkiegu Hernaniko Udalari eta Karmelo Labaka Institutuari, eman dizkiguten 6 tornu eta 70 ordenagailuengatik. Donostiako eta Hondarribiako Udalari eskerrak eman nahi dizkiogu emandako sentsibilitate hitzaldiengatik.

Era berean, eta azpimarratuz, eskerrik asko baita ere Lasarteko *Misiones Diocesanas Interparroquiales*, eskolako materiala zuen edukiontzia Guatemalara ekartzeko laguntzeagatik.

Gipuzkoako herriek eta erakundeek duten eskuzabaltasuna konpartitu genituen bertan izan ginenean. Herri arteko eskuzabaltasuna bizitu genuen. Mundu justuagoa eta solidario baten esperantza dugu.

Bide batez, Gutemalako herri-tar eta lagunengatik Gabon zoriontsuak opa dizkizuet eta 2010-garren urtea ilusioz bete izan dadila guztiontzat espero dut. Eskerrik beroenak emanez,

P. Miquel Cortes Bofill
Fe y Alegria Guatemala-ko zuzendaria

(*Erredakzioan euskeratua)



Eliz musika kontzertua gaur Milagrosan

Kantuz abesbatzak Hernaniko Musika Eskola izango du aurten lagun.

KANTUZ abesbatzak urtero, sasoi honetan, eliz musika edo musika sakroaren kontzertua ematen du, eta urtero, musika talde ezberdina gonbidatu ohi du. Kontzertua gaur izango da eta aurtengoan, Hernaniko Musika Eskola izango du lagun Kantuz abesbatzak. Musika sakroa entzun ahal izango da koruko ahots eta Musika Eskolako instrumentuek interpretatuta. Kontzertua Milagrosako kaperan izango da arratsaldeko 20:00etan hasita. ||

❖ KAROBI ELKARTEA

Haur festa asteartean

Karobi elkarteak bere urteurrena ospatzeko, urtero egiten du umeen eguna eta aurten, asteartean izango da, 17:30etan, Karobi elkartearen. Artetik taldea egongo da umeekin eskulanak egiten eta gero txokolatada izango da denentzat. Herriko ume guztiak gonbidatuta daude. ||

❖ ERREGEAK 2010

Jantziak biltzeko bilera asteartean

Erregeen kabalgatan pajez jantzita parte hartu behar duten umei dei egin zaie asteartean Biterin egingo den bilerara azaltzeko, 17:30etan. Jantziak biltzeko izango da bilera. ||

◆ TXAKUR ETA GUZTIKO EHIZA TXAPELKETA

Bigarren txanda bihar izango da

Txakur eta guztioko ehiza txapelketako bigarren txanda joan den astean zen jokatzekoa, baina eguraldi txararen eraginez bertan behera geratu zen. Txantxangorri elkarteak jakinarazi duenez, bihar izango da, betiko lekuan. ||



Urte berri on guztioi!!



NAGUSIA, 25
943 557 509



◆ ELIZA - Jose Ignacio Munilla Gotzain berriaren izendapena

Hernaniko artzapez-barrutiko 8 parrokok sinatu dute Munillaren izendapenez kezkatuta idatzitako agiria

Munilla Gotzain berriaren izendapenarekin, Gipuzkoako elizaren ordezkarien %77k idatzi bat sinatu zuen desadostasuna agertuz; tartean Jose Luis Aperribai Hernaniko parrokoa.

ORAIN dela hilabete izendatu zuten Jose Ignacio Munilla Donostiako Gotzain berria, eta Gipuzkoako elizaren ordazkari gehienek, hau da, %77ak, idatzi bat sinatu zuten Gipuzkoako Elizbarrutirako Gotzain berriaren izendapenagatik «samina» eta «kezka» agertuz. Hernaniko artzapez-barrutiko zortzi parrokok ere sinatu zuten idatzia: Jose Luis Aperribai Hernaniko parroko-

ak, Iñaki Aranzadi Urnietakoak, Mikel Goenaga Astigarra-gakoak, Arturo Garcia eta Jose Ramon Trebiño Martutenekok, Jose Maria Ormazabal Gurutze Santukoak, Manuel Oyarzabal S. Martin Sorabilakoak eta Iñaki Zabaleta S. Martin Toursekoak.

Azpi-asmoa eta prozedura gaitzetsi

Apaz eta erlijioso hauek gai-

tzetsi egiten dute «Goztzen berria izendatzeko izan zen azpi-asmoa eta erabili den prozedura» eta «deituratu» egiten dute erabaki hau hartzean Elizbarruaren eta beraren erakunde pastoralaren sentimena aintzatzat hartu ez izana eta errespetatu ez izana. Horrez gain diote, Munillaren ibilbidea Elizbarrutiko lan-ildoetatik urruti dagoela.

Orain arte landutako ereduari eutsi nahi

Baita ere aditzera eman dute bat datozela beraien Elizbarrutian orain arte landu duten ildo pastoralarekin eta eliz ereduarekin, eta horiei eutsi nahi dietela eta horien arabera jarraitu lanean. Eta hala azaldu dute: «ziur gaude gurekin izango dugula sinestun askoren lankidetzatza». ■

☞ **Jasota Bezala**

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

'Berriro'

Jesus Maria Mugica eta Gerardo Munduate: egia da. Oso kontzientziatua eta interesatua nago (komatxorik gabe) atez ateko gaikako bilketa sistema ondo atera dadin; eta baita ere nahigabetua - ez dezepzionatua- lagunduko ez dutenekin beraien estrategiaren alderik zikinena erabilita.

Ez dut inoiz esan egungo sistemari bosgarren kontenedorea gehituta, bikoitza kostatuko litzaiaguenik, zuek zuen idatzian aipatzen duzuen bezala. Galdetzen duzue zein sistema izango den garestiena, oraingoa, bosgarren kontenedorearekin, edo atez atekoa. Bere garaian Iñaki Arratibelek esan zuen: *bilketa sistema berriak (atez atekoak) egungo hondakinen kudeaketaren kostua bikoiztu dezake*, Vilassar de Marreko kostuen datuak eta emaitza txarrak aipatuz. Puntuz puntu erantzun zitzaion... eta isildu egin zen, eta modu berean isiltzen dira erreferenduma egitea egokia ez dela arrazoitzen dietenean, bozka arduratsuen hutsunea dela eta.

Auzokako bileretan honen guztiaz inguruan hitz egin da, eta ez azaltzea, isiltzea bezalako xea da, eta *entzun eta isil, baiezko borobil...* nahi duzuen pentasatu. Horrez gain, atez atekoak langile gehiago behar izatean (Hernanin 2 gehiago) gaikako bilketa zehatzagoa eta eraginkorragoa da. Horrela, atez atekoaren ezaugarrietako bat da, ia dena birziklatzen dela, eta ondorioz lehengaiak eta energia aurrezten direla. Birziklagarria ez den zatia %15-20ra murriztean, egun, zabortegiko faktura eta etorkizuneari errauskailukoa, minimoa da eta kutsadura ere bai. Honekin guztiarekin emaitza hobeezinez lortzen dira arlo guztietan: ekonomia, ekologia, pedagogia, osasuna... eta lanpostuak sortzen dira.

Lagunak, 'kontu' honekin eta gehiagorekin, ezin badut zuengana jo, ziur bidaltzen didazuen 'beste jende' horrek, bizitza zaila ikusten duenean (zuen seme-alabek esaterako)... sistema bere egiten dutela.

Julen Lizaso Aldalur
(*Erredakzioan euskeratua)

☞ **Jasota Bezala**

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

2009ko Gabonak

Esker ona erakusteko asmoz bidaltzen dizuet Gabonak eta Urte Berria zoriontzeko gutun hau. Utziko didazue, labur-labur, Jesusen jaiotzan sentitzen dudana inspirazioa azaltzen. Ez dut asmorik inor konbentzitzeko edo bihurtzeko.

Sentimendu sakonenean, itsuak bakarrik ulertu dezake itsua, edo pobreak pobrea. Era berean, gizakiak bakarrik salbatu dezake gizakia. Jainkoa aditza gizaki bihurtu zen, gure gizatasunetik gu salbatzeko. Jainkotatunetik iritsitako salbazioa, gizakiak parte hartu gabekoa, debaldekoa izango litzateke, gaizki ulertua. Jainkoa gizaki jaio da, berdina berdinetik salbatzeko (G. Nancianceno).

Jaiotzetik gurutze-iltzatua izan arte, Jesusen gizakiaren alderik txarrena ezagutu zuen: mespretxua, abandonua, ez ulertzea, gorrotoa, hiltzeari beldurra, mina, tortura, injustizia... gizakiak bizi dezakeen txarrena bizitu zuen. Egoera horiek bizituta lortzen du Jesusen gizakiaren askatasuna. Guk ordea bedekapenekin, konkordatuekin eta dekretuekin lortzen dugu. Arroparekin, eta esku garbiekin.

Heriotz zigorrez hil aurreko gauean, afari baten testuinguruan, bere jarraitzaileak behartzen zituen hankak garbitzen uztera. Egintza honen bitartez, bere bizitza osoan indarra hartzen

joan zen mandamentua betikotu zuen: elkar maitatu ezazue. Ondoren, gure artean irauteko beste bide bat ireki zuen, ogi eta ardo bidez. Afaria bukatuta, oli-bondo artean, bere jarraitzaileak lo zeuden bitartean, asetu arte edaten zuen, alde aurretik jakinda ez zuela ezertarako balioko. Eta odola izerditzera iritsi zen.

Bizitzako azken ordu hauek bizitzeko jaio zen, eta Jesusen bere jarraitzaileekin bizi nahi ditu, betirako. Eta horregatik, gizartu zituen ogia puskatzea eta ardo edatea. Gaur egun ordea, zoritxarrez, mezetan bakarrik erabiltzen ditugu, eta zaila egiten zaigu ekintza horretan ikustea Jesusen ikustarazi nahi zuen hanka garbiketa, maitasunaren mandamentua, pobreeganako izan zuen begikotasuna. Topaketa honetan, parte-hartzaile bakoitzak berea egin behar du Jesusen jarrera barnerratzeko: 'Har ezazue eta edan'...

Ziurrenik ez da kasualitatea izango, bere bizitzako aurreneko eta azkeneko ekintza bazkari baten inguruan gertatzea, gizakiaren eskubide oinarritzakoena. Belenen, amak aska batean jartzen du, animaliek jaten duten lekuan. Eta gainera, artzainak dira aurrenekoak gurtzen.

Bi ekintza horien artean, jaiotza eta heriotza, Jesusen pobreeganako jarrera berezia zuela erakutsi zuen. Beraiekin identifikatzen da, 'beraiekin egin zenietena, neri egin zenidaten'...

Nahiz eta kontuan izan San Vicente de Paul, San Frantzisko de Asis eta beste batzuek elizaren historian izan zituzten konpromezuak, elizaren jarrera ez da pobreeganatik oso gertu egon, ez bada hauek karitate objektu bezala erabiltzeko izan.

Azken urteetan, Elizako hierarkia altuenengandik, entzun daiteke Elizaren preferentzia pobreak direla. Zerbait bada.

Pobreak gaur egun Elizaren aukera hori bere larritan bizitzen ari ote dira? Jesusen pobreak laguntzen zituen, eta duindu ere egiten zituen, pertsonak zirela sentiarazten zieten, eta gizartera itzultzen zituen. Hain seguru sentituko ote dira gaur egungo pobreak elizaren amatasunean?. Horien artean emigranteek, egunean janari faltagatik hiltzen diren 25.000 milatik gora umeek, eta pobrezian bizi diren herriek?

Umezurtzak eta gazteak prostituitu egin behar dute ikasi ahal izateko. Noizbait Eliza Amagandik babestuta edo defendatuak sentitu al daitezke? Izan al dezakete jateko eskubidea? Bizitzeko etxe bat edukitzeko edo jatzeko eskubidea? Osasuna, hezkuntza eta familia bat edukitzeko eskubidea?

Gaizki elikatutako emakumeak daude, eta animatu egiten dituzte, agindu egiten diete bezero baten aurrean ez babesteko, normalean mozkortuta egoten den bezeroa. Eliz Amarengandik babestua,

lagunduak sentitzen ote dira haurdun geratzen direnean? Beraientzako oso gogorra da haurdun dauden bitartean abandonatuta sentitzea, gosez jaioko diren seme alabak izatea, ume horiek erabili behar izatea kalean dirua eskatzeko. Momentu horietan, non daude haurdunaldian agindu eta txalotu dutenak? Bizitzaren eskubidea hasten da, bereziki, jaiotzarekin. Fetuak bizitzeko duen eskubidea defendatzen denean hipokresia haundia dago, gero pertsona denean mespretxatu egiten baita.

Pobreak elizatek baztertuta sentitzen badira, normala da Gabonen ezaugarria kontsumismoa izatea.

Gure lanaren alde egiten duzuen guztien artean era guztietako sinesmenak daude, baita sinesten ez dutenak ere. Hala ere, guztiok badugu izendatzailerik komuna, bizitza, bizitza duina. Zuen benetako babesa eskertzen dut, eta elkarrekin, urruntasunean, giza berotasuna eramaten jarraituko dugu Beleneko ateetara. Bertan, Jesus jaioberriak izena du Eder, Ona, Samwel, Hailish...

Gabon zoriontsuak eta 2010 zoriontsua izan. Jainkoak bedeinka zaitzate.

Angel Olan
(*Erredakzioan euskeratua)

Urte berri on!



TERRA MITICA

HERNANI BIDAIAK
Urbietan, 6
943 33 00 49
hernanib@teletel.es
www.hernanibidaiak.com

GABONETAKO ZOZKETA

Aurten 4 urte beteko ditu gure lehiaketak. Gero eta partaide gehiago ditugu. Gogoratu, PARTE HARTZEA dela garrantzitsua eta horrela sari nagusiaren ZOZKETAN sartuko zara.

ZOZKETA EGUNA:
URTARRILAREN 4an GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

SARIA:
TERRA MITICAN
2 heldu eta 2 umeentzako egonaldia.
7 egun (6 gau) PC + 2 egunetako sarrerak

Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu TERRA MITICARA joateko egingo dugun zozketan

BALDINTZAK:
Gai: "BIDAIAK"
Adina: 4-11 URTE
EPEA: urtarrilaren 8a baino lehenago.



Proiektu bakar bezala ikusten ditu Hernaniko Udalak Galarreta eta Estubegiko bi hitzarmenak. Goiko argazkian, Galarretan egingo duten Parke Teknologikoaren maketa.

DATU BATZUK:

BI PROIEKTU EZBERDIN BATEAN UZTARTUAK

Berez bi proiektu ezberdin dira Galarretakoa eta Estubegikoa. Galarretakoa Teknologi gunea izango da eta Estubegikoa industriagunea.

GUZTIRA 173.000.000 EUROKO INBERTSIOA

Galarretako Teknologi gunek inbertsio izugarria eskatuko du: 160 milioi euro. Estubegiko industrialdeak 13 milioi euroko inbertsioa.

GUZTIRA 139.000 m2

Galarretako teknologi gunek 108.000 m2 izango ditu, eta Estubegiko industrialdeak 31.000 m2.

10.000 m2 GIPUZKOAKO UNION FARMAZEUTIKAK

Estubegiko industrialdearen heren bat, Gipuzkoako Union Farmazeutikarentzat izango da.

10.000 m2 HERNANIKO INDUSTRIENTZAT

Hernaniko herri barruan geratu diren industriak aurrera ere Hernanin bertan geratzeko aukera izango dute, Estubegira eramango dituztelako.

2.000 m2 UDALAREN OBRA PABILOIARENZAT

Hernaniko Udalak Floridan duen Obra Pabiloia Estubegira joango da.

LEGEZKO %15 UDALAK EZ DU JASOKO

Hernaniko Udalak erabaki du, legez dagokion eraikigarritasunaren %15 ez jasotzea. Horrela dirulaguntza gisa 7.000.000 euro jarri ahal izango ditu.

Joan den urriaren 30ean aurkeztu zutenetik, Galarreta eta Estubegiko proiektuak etengabe ari dira aurreratzen. Astelehenean firmatu ziren Hernaniko Udalean bi hitzarmenak, eta 2012an zenbait zati martxan izatea nahi dute bultzatzaileek. Batez ere, Galarretan Parke Teknologikoa eta Estubegin industrialdea dira egingo dituztenak.



Ezkerreko zirkuluan Galarretako proiektuak hartuko duen eremua; eskubikoan Estubegikoak hartuko duena. (Argazkia: Paisajes Españoles - Udal Artxiboa)

Datorren urtean obrak hasi, eta 2012an gehiena bukatua

OBRAK datorren urtean hasi nahi dituzte, eta 2012an zati gehienak eginak izango direla azpimarratu dute bultzatzaileek. Galarreta eta Estubegiko proiektuez ari gara, martxa izugarria daramakiten bi proiektuz; urriaren 30ean egin zuten lehendabiziko aurkezpena Miramongo Parke Teknologikoan, eta joan den astelehenean sinatu ziren Hernaniko Udalean.

Alderdi eta erakunde guztien babesak jaso dute bi ekimenek; estrategikotzat jo dituzte teknologia, garapena eta industria arlotik, aberastasun haundiak ekarriko dizkiola-koan herriari.

Gehien azpimarratu diren puntuaren artean honakoak daude:

- 1) Estubegiko industrialde-
ra etorriko da Gipuzkoako Union Farmazeutika.
- 2) Estubegiko industrialde-
an heren bat erreserbatuko da,
Hernaniko herri erdian dau-
den enpresentzat.

3) Galarretan Mondragon Unibertsitateak egoitza bat izango du.

Askoren arteko akordioa

Bi urteko lanaren ondoren, azkenean lortu da beharrezko alde guztien arteko akordioa. Astelehenean sinatu ziren bi hitzarmenak Hernaniko Udalean.

Estubegiko hitzarmena sinatu zuten: batetik Marian Beitialarrangoitia Alkateak, eta bestetik Mikel Oregi Buruntzaldeko Industrialdeako ordezkariak. Horretarako, dena dela, alde aurretik adostasuna lortu behar izan dute SPRILUR eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, az-

ken erakunde horiek osatzen baitute Buruntzaldeko Industrialdea enpresa (Hernaniko Udalarekin batera).

Galarretako hitzarmena sinatu zuten Marian Beitialarrangoitia Alkateak eta Francisco José Berjón Donostiako Parke Teknologikoko ordezkariak. Sinadura horretarako ere alde aurretik erakunde gehiagoren adostasuna behar izan da, Parke Teknologikoko kide baitira: SPRI, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Kutxa.

Estubegi, 31.000 m2-ko industrialdea
Estubegiko industrialdeak, 13.000.000 euroko inbertsioa

eskatuko du, eta 31.000 m2 izango ditu. Gutxigorabehera heren bat Gipuzkoako Unión Farmazeutikaren egoitzarentzat izango da, 10.000 m2. Beste heren bat, Hernaniko herri barruan dauden industrientzako izango da, batez ere Florida aldean dauden industrientzako. Beste 2.000 m2 Hernaniko Udalarenak izango dira, eta bertara eramango du Floridako Obra Pabiloia.

Galarretako teknologi gunea, 160.000.000 euroko inbertsioa

Galarretako teknologi gunek 108.000 m2 izango ditu, eta 160.000.000 inbertitutuko dituzte bertan. Funtsean, Donostiako Teknologi Parkearen zabaltzea da, Mondragon Korporazioko Orona enpresaren ekimen pribatuarekin elkarlanean egingo dute.

Galarretako teknologi gunean, 60.000 m2 erabiliko dira ikerketa eta garapenera-

Marian Beitialarrangoitia:

«6 milioi euro, irabazi asmorik gabeko lkasleku Fundazioari bideratuko dizkiogu, etekin ekonomiko zuzenak ez dituzten jarduerak bultzatzeko, kasu Unibertsitatea. Ez da mahuka»

ko, teknologi garapenerako azken batean. Beste 40.000 m² IKASLEKU Fundazioak izango ditu, eta bertan jarriko dute, besteak beste, Mondragon Unibertsitatearen egoitza bat, Oronaren egoitza bat eta abar... Beste 8.000 m² erabilera tertziariorako erabiliko izango dira, eta oraindik zehaztu gabe dago zer izango den zehazki.

Hernaniko Udalak 7.000.000 euro jarriko ditu

Hernaniko Udalak inbertsio handia egingo du bi proiektu horietan. Joan den astelehenean Gobernu Taldeak eman zuen prentsaurrekoan, Marian Beitialarrangoitia Alkateak azaldu zuen, inbertsio hori nondik eta nola egingo duen Udalak:

«Hernaniko Udalak esfortzu itzela egin behar izan du akordio hauetara iristeko. Bi hitzarmenetan, Udalak ez du jasoko eraikitzeagatik dagoen %15, legez dagokiona, herrian egiten den edozein eraikuntzagatik». Beraz, %15 hori izango da Hernaniko Udalak diru-laguntza gisa jarriko duena, gutxigorabehera 7.000.000 euro.

6.000.000 euro Ikasleku Fundazioarentzat

Udalak inbertituko dituen 7 milio eurotik gehienak, Ikasleku Fundazioan inbertituko ditu. Beitialarrangoitiak honela arrazoitu zuen astelehenean Udalaren erabakia: «Galarretako Gune Teknologikoan inbertituko ditugu 6 milio euro, zehazki irabazi asmorik gabeko Ikasleku Fundazioari bideratuko dizkiogu; honek etekin ekonomiko zuzenak ez dituzten jarduerak bultzatzeko, kasu Unibertsitatea. Ez da mahuka».

«Balorazio positiboa»

Beitialarrangoitiak «oso balorazio positiboa» egin zuen asteleheneko prentsaurrekoan: «lortu duguna handia da, are gehiago krisi garaian gauden honetan, gure etorkizuna garatzeko, aberastasuna, lanpostuak, heziketa eta ikerketako gune berriak eta bestelako onurak ekarriko dizkigun operazio bikoitz batetz ari garen neurian». ■

Javier Mutuberria

ORONako Zuzendari Nagusia:

«Galarreta estrategikoa da, Orona eta Mondragon Korporazio guztiarentzat»

Galarretan egingo den Parke Teknologikoan, bultzatzaile nagusia Orona izan da. Oronak, Mondragon Unibertsitatearekin eta Ikerlan enpresarekin batera,

Ikasleku Fundazioa sortuko du Galarretan. Ikerketa eta garapenerako zentrua izango da Ikasleku, eta Mutuberriaren ustez, 'ikur' bihurtuko da Hernanirentzat.

GALARRETAN egitekoa den Parke Teknologikoaren bultzatzaile Orona enpresa izan da. Oronak ikerketa eta garapenerako zentru bezala definitu du proiektua, eta Mondragon Korporazioko kide diren Ikerlan eta Mondragon Unibertsitatearekin sortuko du Ikasleku Fundazioa, Galarretako Parkearen erdia inguru hartuko duena.

Hernaniko Kronikak Javier Mutuberriarekin hitz egin du, Oronako Zuzendari Nagusiarekin. Mutuberriak esandakoaren arabera aspaldian zuen Oronak zabaltzeko asmoa, «2004an egoitza berria inauguratu genuenean ari ginen pentsatzen hurrengoan. Zure proiektu enpresariala hazkundearekin lotzen baduzu, azpiegituren proiektzioa eta etorkizuna ezinbestekoa da».



Javier Mutuberria Oronako Zuzendari Nagusia.

«Guretzat zabaltzeko leku aproposa da Galarreta: Hernani da, Parke Teknologikoa da, eta agerian geratzen da; Donostialdearen foko estrategikotzat hartu liteke»

Galarreta oso leku aproposa dela irizten dio Mutuberriak: «Hernani delako (bertako enpresa izanda badugu nolabaiteko "zor" hori Hernanirekin), Parke Tekno-

logikoa delako, eta bisiblea delako; Donostialdearen foko estrategikotzat hartu liteke».

«Orona EIC guztia bertan»

Batez ere, ikerketa eta garapenerako sekzioa jarriko du Oronak Galarretan. Lehen ere asko inbertitzen du Oronak i+g alorrean, eta horren adibide da Orona EIC (Elevator Innovation

Centre). 150 profesional ari dira i+g alorrean lanean, eta 10 milio euro bideratzen ditu horretara.

Galarreta proiektuan bilduko du Oronak Orona EIC osoa, promozio zentroa, eta korporazioaren hainbat egoitza eta azpiegitura ere bertara eramango ditu.

Ikasleku Fundazioa:

Ikerlan, MU eta Orona Oronak ikerketa eta garapenera, elkarlanean egin izan

du lan Ikerlan eta MUREkin. Horregatik, Galarretako ideia Oronak bultzatutakoa bada ere, proiektua Mondragon Korporazioko hiru kideek osatzen dute. Ikasleku Fundazioa sortu dute, eta hark gestionatua izango da Parke Teknologikoaren %50 inguru.

Hernanirentzat 'ikur'

Mutuberriaren ustez, Ikasleku iker bihurtuko da Hernanirentzat, «Aukera ederra da Hernaniko gazteriarentzako, bere bide profesionala garatzeko: arlo teknikoa, ingenierritza, ekiztaile perfila duten pertsonentzat». ■

ORONA

Orona osatzen dute: Orona S.Coop jatorrizkoak eta Electra Vitoria S.Coop enpresak. Horiek dira nolabaik Mondragon Korporazioan (MCC) *Elevación Dibisioa* eratzen dutenak:

DATUAK:

-Bi kooperatiba hauek filialak dituzte, munduko hainbat lekutan: Portugalen, Frantzian eta abar. Guztira: **28-30 enpresa**.

-Lapostuak: **4.000**

-Fakturazioa: **500.000.000** euro

-**Ikerketa eta garapenean**, barruan eta kanpoan **150 ingeniari**.

-**20tik 1 Orona'**: Munduko 20 igogailu berrietatik 1 Orona da.

-**180.000 aparatu** martxan Oronak sortuak eta banatuak.

-**92 herrialdeetara** bidaltzen ditugu igogailuak.

biokbi
optika

Antziola, 14
Tel.: 943 33 68 86

Urte berri zoriontsua
opa dizuegu!!!



Orain, betaurreko graduatuak edo eguzkitako betaurrekoak erosita, opari bat egingo dizugu.



GABONETAKO
PREZIO
BEREZIAK

YONE
boutique

Nagusia, 63
Tfona.: 943 55 74 73
HERNANI

boutique

◆ EITB - TRINDOOR TXAPELKETA



Xabier Errazkin, Arkaitz Goñi eta Sergio Roman.

Goñi, Errazkin eta Romanek finala jokatu dute gaur, EITB-Trindoor txapelketakoa

Finalean lau herri izango dira: Hernani, Villabona, Tolosa eta Azpeitia. EITBren Miramongo Egoitzan jokatu da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Herritarrei dei egin diete ikustera eta animatzera joateko, sarrera librea baita.

IRITSI da egun haundia. Gaur jokatu da EITB-Trindoor txapelketako finala, Gipuzkoako lau herriren artean; tartean Hernani. Arkaitz Goñi, Xabier Errazkin eta Sergio Roman arituko dira lehian, Villabona, Tolosa eta Azpeitiaren kontra.

Hernaniarrak faborito

Herri bakoitzak hiru kirolariko ordezkari izango du, eta egin beharreko probak izango dira 1.000 metro ergometroan, 5km bizikletan eta 2km korrika zinta ganean. Hernaniko taldean, Arkaitz Goñi arituko da ergometroan, Xabi Errazkin bizikletan eta Sergio Roman korrika.

Gainera, beraiek dira txapelketa irabazteko faboritoak. Orain arteko kanporaketak

marka onena beraiek dute, 15 minutu eta 22 segundukoa. Atzetik dira Villabonakoak, 15 minutu eta 25 segundurekin.

Hirugarren marka berriz, Azpeitiak du, 15 minutu eta 29 segundurekin. Azkenik, laugarren Tolosa da, 15 minutu eta 59ko denborarekin.

Finala Miramonen jokatu da Finala EITBk Miramonen duen egoitzan jokatu da, gaur, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Kirolariak dei egin diete herritarrei ikustera eta animatzera joateko, sarrera librea izango baita. Finalak ikusmira haundia sortu duela kontuan izanda, kirol munduan oso ezagunak direnak ere bilduko dira bertan: Jose Luis Korta, Haimar Irigoien, eta Abraham Olano esaterako.

Herri arteko txapelketa

Trindoor txapelketa Euskadi Irratiko Hiru Erregeen Mahaia saioak antolatzen du, eta aurreneko aldiz, 2008/09 denboraldian egin zuten. Orduan, helburua, triatloi bat osatzea zen, hiru kirolariek elkarri erreleboa emanda.

Aurtengo denboraldian berriz, 2009-10ean, proposamen berria jarri zuten martxan. Txapelketak talde formatua hartu zuen, eta herri arteko txapelketa antolatu zuten. Guztira, 16 herri aritu dira lehian, 10 gipuzkoar, 3 bizkaitar, 2 nafar eta arabar 1. Finala jokatzeko berriz, aipatutako lauak sailkatu dira, guztiak gipuzkoarrak: Hernani, Villabona, Tolosa eta Azpeitia. II

Eskelak


LEHENENGO URTEBETETZEA
† **MARITXU GOÑI OIARTZABAL**
ANDREA
(MANUEL AZPIAZUREN ALARGUNA)
2008ko abenduaren 10ean hil zen, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-
Seme-alabak: Jose Manuel eta Marisa Urrutia, Koldo, Jon eta Marie Claire Aduriz; bilobak: Juan Cruz eta Cynthia, Iñaki, Ana eta Jon, Ainara, Urko eta Ametz; ezkon ahizpa: Tomasa Azpiazu; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, Hernaniko JUAN BATAIATZAILEAREN** parrokian egingo den **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko abenduaren 26an

Helbidea: Kardaberaz, 2-2.



† **AURORA DE LA GALA MIGUEL**
ANDREA
Herenegun hil zen, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-
Alabak: Aurori eta Patxi Zabala, Marilis eta Josu Eizagirre; bilobak: Xabier, Paula, eta Maria; anai-arrebak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Hernaniko JUAN BATAIATZAILEAREN** parrokian egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko abenduaren 26an



 **JOSU CASADO LABURU**
JAUNA
Herenegun hil zen, 62 urte zituela


*Agur osaba,
Utzi gaituzu bapatean
baina irakatsitako
bizitzeko gogoa
geldituko da betirako
gure artean.*


ZURE ILOBAK

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Hernaniko JUAN BATAIATZAILEAREN** parrokian egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko abenduaren 26an

OHARRA: Gorputz beila Hernaniko Vascongadaren Tanatorioan dago (Orkolaga kalean) gaur larunbata, arratsaldeko 15:00ak arte.




 **JOSU CASADO LABURU**

*Utzi diguzun oroitzapena
hegaldi luze honetan
lagungarri izan dakizun.*

**JOXE ETA IXABEL, EIDER ETA AITOR,
OIHANA, ETA ARNAITZ**

Hernanin, 2009ko abenduaren 26an



 **JOSU CASADO LABURU**
MANEXEN TALDEKIDEAK

Hernanin, 2009ko abenduaren 26an



FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



ORBEGOZO
FUNERARIA
TANATORIO · BEILATOKIA

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

BALANTXA

ELEKTROGAILUAK

Nagusia, 17 - Tel.: 943 33 40 22



E-BOOK

LIBURU DIGITALA

MP3 - MP4 eta MP5
AUKERA ZABALA



BALANTXA

ELEKTROGAILUAK

Nagusia, 17
Tel.: 943 33 40 22

kixkal

taberna

Nagusia, 15

AURTENGO GABONETAN GURE BEZEROAK SARITU NAHI DITUGU

Abenduko bezero guztien artean,
saski hau zozketatuko dugu

LCD SHARP TB 32" - Wii konsola bi mandokin, super sport eta super smash
bross - Sony bideokamera DCR-DVD - Txokolatea egitekoa - Fagor kafe express
kafetera - Ufesa batidora - Remington ile lehorgailua - Fagor Rapid Express
eltzeak - Planxa zentroa - Ufesa tostadora - garagardo kaineroa - Marques de
Arienzo 12 botila - Urdaiazpikoa -

ZOZKETA URTARRILAREN 5EAN EGINGO DA KIXKALEN

Urte berri On!!

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Castilla** Urbietta 7 - 943 552941 ● Gauz: **Castilla** Urbietta 7 - 943 552941

EGURALDIA ● **GAUR** Goizaldean zaparrada ertainak botako ditu, baina eguerdi partearako ostarteak irekiz joango dira eta arratsaldean urdingune haundiak izango dira. Giro hotza izango da.
● **BIHAR** Giro nahasia, lainoak nagusi eta euri arriskua. Elur-kota 1000 m inguruan kokatuko da. Ipar haizea ibiliko da eta mendi inguruan gogor joko du. (euskalmet)

ZORIONAK
EZ GAUDE DENOK!!
MAIALEN

Kaixo Baltasar errege maitea:
Aurten oso txintxo portatu naiz, baina ez dizut jostailurik eskatuko erregetarako. Nire aita banketxe garrantzitsu bateko zuzendaria da eta denetarik dut: pistina bat, pottoka bat, itsasontzi bat... Baina nire aitatzok denbora asko pasatzen du etxetik kanpo lanaren erruz eta aurten eskatu nahi dizuna da aitatzok lan gutxiago egitea.
Eskarrikasko eta muxu haundi bat, Unai.

Kaixo Unai maitea.
Ni ere oso txintxo portatu naiz aurten, baina hala ere enpresan ERE bat ireki digute eta Gaspar eta nik kalean bukatu dugu. Meltxorrek baja bat hartu du depresioak jota. Nire kurrikuluma bidaltzen dizut zure aitatzori eman diezaiozun, dirudienez bera baita krisiak kaltetu ez duen bakarra!
Eskarrikasko eta muxu haundi bat, Baltasar

Alan Aburto 09



'Nafarroaren konkista' dokumentala ikusgai asteartean, Biterin

Proiektzioa 19:30etan hasiko da eta ondoren, solasaldia izango da.

NABARRALDEK antolatuta, 1512, Nafarroaren konkista izeneko dokumentala ikusteko aukera izango da asteartean, arratsaldeko 19:30etan, Biterin. Proiektzioa bukatu ondoren, ordu erdira gutxi gorabehera, gaiaren inguruan hitz egiteko aukera izango da.

«Nafarroa miragarri izango

da munduarentzat» Shakespearerekin 1594an idatzitakoa abiapuntuz hartuta hasten da dokumentala, eta garai hartan Nafarroak zuen ospea benetako zela azaldu ondoren, mendeetan zehar Gaztelak Nafarroari egindako presio militar eta politikoa, Aragoi eta Frantziarenaz aparte, errukiga-

bea izan zela kontatzen da. Horrez gain, «ezkutatu izan zaigun historia» dela aipatzen da eta 1512an, Gaztelako Fernando Katolikoak Albako Dukearen bidez, independentea zen nafar lurraldea inbaditu zuela armak erabiliz, eta ez zela izan, kontatu izan den bezala, hitzarmen bidez adostua. ||

◆ EUSKAL HERRIKO KIROLARIAK - KIROLHARRIA

Kirolaz eta kulturaz gozatzeko aukera bihar

Euskal Herriko Kirolariak antolatuta *Kirolharia* ekimena izango da bihar Donostiako Belodromoan. Ekitaldiaren helburua da Euskal Herria, kirol alorrean, ofizialki ordezkatu izatea. Ekitaldia 18:00etan hasiko da eta doan da. Hernaniko kirolariak, eta beste hainbat kirolari, bertsolari eta artistek dei egin diete heritarrei ekimenera joan eta parte hartzeko. Ekitaldian kirola eta kultura uztartuko dira. ||

Atez ateko zalantzak argitzen

2009an San Markoko zabortegia itxi zenetik nora eramaten dira gure zaborrak?

Inguruko zabortegietara. Zehazki, Beasainera (Sasieta), Zarautzera (Urteta) eta Azpeitira (Lapatx).

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

- Alokatzen den pixu baten bila nabil, Hernanin, 2 edo 3 gelakoa. Deitu: 664 124 259**
- Portatila salgai, egoera onean egoteagatik itzuliz ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. Prezioa: 430€. Deitu: 678 595 638**
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
- Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelefo ajustea eta bertebra, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

TRIPA BETE NAHI?
sabemos castellano

taberna tripartzi

menuak, pintxoak, razioak, entsaladak, plater konbinatuak...

Urte berri on!!

Kardaberaz kalea, 11 - HERNANI - 946 555 724

arrosak
edergintza

Antziola 9
Tel. 943 33 02 89

Urte berri on!!

'Cavita'zioa
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologian azken berrikuntza - Tratamendu pertsonalizatuak

AZAROAN ETA ABENDUAN PREZIO BEREZIAK
Hartu ezazu bonoa orain eta ondo datorkizunean egin ezazu tratamendua

Zatuz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztia!

TERMO SAUD
cavitación

gerria 6 sesio -2,5 cm

abdomena 6 sesio -1,5 cm

izterrak 6 sesio -2,8 cm